

Emakumeentzat zailagoa da minbizia prebenitzea, garaiz detektatzea eta ongi artatuak izatea



ARG.: Parentingupstream/Pixabay

Genero-arrakalak zuzenean eragiten du emakumeek minbizia izateko dituzten arrisku-faktoreak saihesteko aukeretan eta oztopatu egiten du diagnosi egokia eta kalitatezko arreta izatea. Ondorio hori ateratu du *The Lancet* aldizkariak gaia aztertzeke osatu duen batzorde batek. "[Women, power, and cancer: A Lancet Commission](#)" txostenean jaso dute azterketa hori.

Munduko herrialde gehienetan, emakumeen heriotza goiztiarren lehen hiru kausetako bat minbizia da. *The Lancet*eko batzordearen txostenarekin batera argitaratu duten ikerketa batek erakutsi duenez, 2020an 70 urtetik beherako 2,3 milioi emakume hil ziren minbiziarekin, eta heriotza horietatik 1,5 milioi saihestu zitezkeen, arrisku-faktoreak ezabatu edo diagnostiko goiztiarrak jasota. Eta beste 800.000 heriotza ere saihestuko ziratekeen gaitxoek arreta optimoa jaso izan balute.

Bestalde, batzordeak argitu du ezen, emakumeek eta minbiziak aritzean fokua "emakumeen minbiziaren" jartzen bada ere (bularreko edo umetokiko minbizia, esaterako), 70 urtetik beherako emakumeetan minbiziak eragindako heriotzen hiru lehen kausetatik bi biriketako minbizia eta kolonekoa eta ondestekoa direla.

Testuinguru horretan, txostenak garbi erakusten du hau ere: gizartean dagoen genero-ezberdintasuna dela eta, emakumeek gizonetako baino aukera gehiago dituzte arrisku-faktoreen eraginean egoteko, eta, aldiz, aukera gutxiago beharrezko osasun-informazioa eta kalitatezko osasunerbitzuak eskuratzeko eta minbiziarekin lotutako erronka ekonomikoari aurre egiteko.

Bestalde, gaixoetan duen eraginez gain, generodesberdintasunaren bestelako ondorio batzuk ere azpimarratu dituzte; esaterako, minbiziaren inguruko ikerketetan eta politiketan parte hartzen duten liderren gehiengoa gizonetakoak direla.

Hala, batzordeak aldarrikatu du minbizia lehenagotik gisa hartu beharra dagoela emakumeen osasunean, eta ezinbestekoa dela ikuspegi feminista bat txertatzea minbiziaren inguruko politiketan eta jarraibideetan, emakume guztien beharrak aintzat har daitezkeen, izan pazientek, zaintzaileak edo ikertzaileak. ●



[Albiste gehiago, webgunean](#)